




# geurien

euskera  
hitzarmena

8. zenbakia

## LAU KOMERTZIO BERRI GEURIEN EGITASMOAN



### AURKIBIDEA:

- Komertzio berriak Geurien proiektuan ... 2-3.orr.
- Eta datorren ikasturtean zer? ..... 4.orr.
- Julio Kamiruagarekin berbetan ..... 5.orr.
- Euskararen aldeko eguzki-izpiak ..... 6.orr.
- Nola erdalduntzen dira elkarrizketak? ..... 7.orr.
- Euskarazko baliabideak Interneten ..... 7.orr.
- Elorrioko agenda bateratua ..... 8.orr.

# KIDE BERRIAK GEURIEN PROIEKTUAN

Azken hilabeteetan lau komertzio berri zabaldu dira Elorrion eta bertako kideek Geurien egitasmoarekin bat egin nahi izan dute. Errotuluak euskaraz jartzeaz gain, handia da euskararekiko erakutsi duten konpromisoa.

## Koska denda

2011ko abenduan zabaldu zuten. San Juan kalearen 9. zenbakian kokatua dagoen denda honetan, etxeko animalientzako behar dituzun produktu eta material guztiak topa ditzakezu. Jokinekin, bertako arduradunarekin egon gara, euskalduna da, beraz, denda horretan euskaraz lasai egin dezakezu.

Jokinen esanetan, adineko jendeak gaztelaniaz erosteko joera du eta gazteen artean desberdintasunak egoten dira: batzuek euskara erabiltzen dute eta beste batzuek gaztelania. Halere, konpromisoa hartu du hartu-eman euskaraz izateko, horretarako lehen berba euskaraz egingo du eta ahal den neurrian euskara izango da lehentasunezko hizkuntza.



## Edna ileapaindegia

2011ko azaroan zabaldu zituen atea Edna Ileapaindegia Errekakaleren 24. zenbakian. Jabeak esan digu gogoia zuela negozio propioa zabaltzeko eta horrela egin du. Poz-pozik dago hartutako erabakiarekin. Magdalenak euskara ulertzen du (berba egiteko zailtasunak dituen arren), horregatik, bere aurrean gaztelaniara salto egiten duten bezeroei euskaraz jarraitzeko esaten die.

En los últimos meses se han abierto cuatro nuevos establecimientos en Elorrio y todos ellos se han adherido al proyecto Geurien. Además de poner los rótulos en euskera, han mostrado un gran compromiso por esta lengua.

Koska es una tienda que vende todos aquellos productos que necesitan nuestras mascotas. La peluquería Edna abrió sus puertas en noviembre y Magdalena anima a su clientela a que hable en euskera, aunque ella no pueda ofrecerles el servicio en esta lengua.

## Aittu akademia

2011ko urriaz geroztik, Elorrioko haur, gazte zein helduek Aittu akademiara jo dezakete ikasketetan sakontzeko. Nizeto Urkizu kalean dagoen akademia honek eskaintza zabala dauka: lehenengo zein bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako laguntza-klaseak, selektibitateko azterketa edo unibertsitaterako sarbidea prestatzeko eskolak, unibertsitateko zientzia-ikasketetan trebatzeko saioak... Horrez gain, hizkuntzak ere irakasten dira bertan. Ikasten ikasteko toki berria dugu Elorrion.

Bertako langile guztiak euskaldunak izanik, klaseak euskaraz izaten dira. Talde txikietan edo banaka egiten dute lan eta zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen da bertan, norberaren beharrei egokitua.



## Xelai taberna

Xelai tabernak, Aittu akademiak egin bezala, 2011ko urrian zabaldu zituen ateak, Nizeto Urkizu kalean. Txaberrek, bertako jabeak, aipatu digu auzoak taberna baten beharra zuela. Izan ere, azken urteetan, auzoa handituz eta zabalduz joan da eta gazte asko joan dira bertara bizitzera. Jendea gustura hurbiltzen da Elorrioko taberna berri honetara. Gainera, bertako eskaintza zabala da, orain arte Elorrion saldu ez diren platerak eskaintzen ditu: oilaskoak, pizzak...

Bi terraza dauzka, bata negurako (berogailu eta guzti) eta bestea udarako apropos-aproposa.

Tabernak menu eta karta guztiak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez zein frantsesez eskaintzen ditu, beti ere, bertako hizkuntzari, euskarari, lehentasuna emanaz.

Langileak batzuetan gaztelaniaz egitera behartuta egoten dira, bezero batzuek ez dakitelako euskaraz. Gazteek ere euren artean gaztelaniaz egiteko joera dute. Bezeroen hizkuntza-ohiturak aldatzea erronka polita izango litzatekeela uste du Txaberrek.



Desde octubre de 2011 la calle Nizeto Urkizu cuenta con dos nuevos servicios. Por un lado la academia Aittu, donde se proporcionan clases de apoyo, cursos de idiomas y otro tipo de formación personalizada. Por otro lado, el bar Xelai, un lugar de ocio y encuentro que dispone de dos terrazas.

Tanto la academia como el bar ofrecen todos sus servicios en euskera.

# ETA DATORREN IKASTURTEAN ZER?

Azken urteetan, hitzarmenarekin bat egin duen establezimendu kopuruak gora egin du nabarmen eta gaur egun 130 establezimendu eta 40 elkarte inguru daude hitzarmenaren barruan.

Urte hauetan guztietan Elorrioko elkarteetan, zein merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-arloan euskararen erabilera areagotzeko eta eragileak sentsibilizatzeko hainbat ekimen antolatu dira eta gaia ikuspegi ezberdinetatik landu da. Hona hemen adibide batzuk:

- Euskara-ikastaroak antolatu dira.
- Itzulpengintza zerbitzua eskaini da.
- Hainbat euskarri sortu dira establezimenduetarako.
- Bezeroak euskaraz eskatzeko *Geurien euskaraz jakina!* Kanpaina antolatu da.
- Herriko plazan merkatarri, ostalari, herriko eragile eta herritarrekin World Kafea egin da, elkarrekin aurrera begirako proposamenak lantzeko.
- Elkarteetan erabileraren segimendua eta proposamen eta konpromisoen segimendua burutu da.
- Urtero, Geurien aldizkariaren bi ale argitaratu dira, egindako lanak eta informazioa plazaratzeko.



Aurten jarraipena izango dute horietako askok, besteak beste, itzulpen zerbitzuak, aldizkariak, establezimendu berriak erakartzeko sustapen-lanak edota euskara ikastaroek. Baina, berrikuntzak ere egongo dira.

Azken urteetan merkatariei begira lan egin dugu gehienbat, eta aurten elkarteetan bidea sakonago jorratu nahi dugu, herribizitzan duten eragina kontuan harturik. Horretarako, herrira begira hizkuntzaren erabileran estrategikoa den elkarte bat aukeratu nahi dugu eta horretan interbentzio bat egin. Talde horretako hizkuntza-errealitatearen inguruko gogoeta-prozesu kolektiboa gauzatu dugu, taldekideen parte-hartzean oinarrituta. Helburua da taldeko kideen artean euskararekiko

atxikimendua eta euskararen erabilera areagotzea. Azken batean, portaera pasibotik edo menpekotasunezko portaera linguistikotik portaera asertiboago eta leialagoetarako bidea egitea.

Bestetik, herriko elkarteekin lankidetzaz-ildo berri bat ere irekiko dugu. Elorriko euskararen erabilera areagotzeko, bertako elkarteek antolatzen dituzten ekintzetan euskara presentago izatea lortu nahi dugu. Horrela, elkarte batekin elkarlanean, euren gaiekin zer ikusia duen ekintzaren bat antolatuko dugu.

En los últimos años hemos llevado a cabo varias iniciativas, dentro del convenio Geurien, con el fin de incrementar la presencia y el uso del euskera en el comercio, hostelería y empresas de servicio de Elorrio. En el curso que viene daremos continuidad a esas iniciativas (como el servicio de traducción, el boletín o los cursos de euskera), pero también impulsaremos nuevas acciones. En los últimos años hemos trabajado sobre todo con el comercio de Elorrio, y este año queremos centrarnos más en las asociaciones, debido a la repercusión que tienen en la vida del municipio. Para ello, haremos una intervención en una asociación estratégica, con el fin de incrementar el compromiso hacia el euskera y, en consecuencia, su uso. Por otra parte, queremos incidir en las actividades que se organizan desde las asociaciones, desde el punto de vista lingüístico, y por ello organizaremos una de esas actividades en colaboración con alguna asociación.

# JULIO KAMIRUAGAREKIN BERBETAN

20 urte daramatza Juliok Berri-Otxoa kaleko Kamikopiak kopistegian lanean. Abadiñoarra da izatez, baina Elorriorekin lotura sendoa egin du urte hauetan guztietan. Duela urtebete euskara ikasten hasia erabaki zuen, Elorrioko AEKn. Pozik dago hartutako erabakiarekin. Hizkuntzen biziraupenerako hainbat gako ere partekatu ditu gurekin.

## 1. Zergatik erabaki duzu euskara ikasten hasia?

Euskararen beharra sumatzen nuelako. Nire barruko kontraesan bat gainditu nahi nuen: euskaldun sentitzen nintzen baina ezin nuen euskaraz hitz egin.

## 2. Eta zer moduzko esperientzia ari da izaten?

Zaila egiten zait, egia esan. Neuronek ez dute berdin funtzionatzen 20 urteko burmuinean edo 57 urtekoan. Gainera, ordutegia gure lan-orduetara egokitu duten arren, ezin izaten dut beti klaseetara joan, lana dela eta. Dena den, ikasten dudan hori ondoren aplikatzen saiatzen naiz eta dendak horretarako aukera paregabea eskaintzen dit.

## 3. Aurrerantzean agian jende gehiago hurbilduko zaizu euskaraz eskatzen...

Niretzat ona izango da. Euskara ikasten ari naiz eta nahiago dut jendeak niri euskaraz egitea ikasitakoak balio izateko. Bestela denbora galtzen nabil. Bezeroak lagundu egin behar dit praktikatzen, euskaldunak lagundu egin behar dio ikasten ari denari.

## 4. Nola ikusten duzu euskararen egoera Elorrioren?

Etorri nintzenetik hona, euskararen erabilera igo egin dela esango nuke. Baina euskarak biziraungo badu, euskaldun zaharrak bere konplexuak gainditu behar ditu. Euskaldunak sarritan uste du ez diotela ulertuko. Jarrera horrekin ez diogu besteari laguntzen, ez dugu euskara ikastera animatzen, eta gure hizkuntza gutxiesten ari gara. Esate baterako, atzeritik datorrenari gaztelaniaz egin ohi dio euskaldun zaharrak, eta portaera horren bidez euskara ez dela beharrezkoa transmititzen dio. Ondorioz, etorri berriak ez du euskara ikasteko beharrik sentituko.

Gauza asko daude egiteko oraindik. Dendan ere ikusten dut hori. Esate baterako, 30 urtekoek euskaraz eskatzen dute, baina ez hainbeste 16 urte ingurukoek. Emakumezkoek gehiago erabiltzen dute euskara gizonetzkoek baino. Etxe komertzialekin ere lan egin beharko litzateke, iragarkiak euskaraz jartzeko esate baterako. Gastu moduan ikusten dute gehienetan, eta ez inbertsio moduan.



Julio abrió la copistería Kamikopiak hace 20 años. El año pasado decidió apuntarse a los cursos de euskera de AEK, ya que vivía una contradicción interna: él se sentía euskaldun, pero no podía comunicarse en euskera. Su compromiso actual es una mayor implicación en el uso del euskera, tanto en su vida personal como en la laboral.

Desde su punto de vista, el/la hablante nativo/a tiene que superar sus complejos y ayudar al otro a acercarse a su lengua. Por ejemplo, ante una persona extranjera el euskaldun utiliza el castellano. Con esa actitud lingüística, en realidad lo que le está transmitiendo es que el euskera no es necesario ni válido, con lo que esa persona no sentirá la necesidad de aprenderlo.

# EUSKARAREN EGURALDIA ELORRION

Azken hilabeteetan euskararen alde hainbat keinu egin dira Elorriion. Lehen begiratuan keinu sinpleak ba-dirudite ere, euskararen estatusa hobetzen eta euskararen aldeko gizarte-portaerak areagotzen lagun dezakete.

Hona hemen adibide batzuk:



- Kale-izenen seinaleak euskara hutsean jarri dira.
- Bi jatetxek euren menuak euskaraz jarri dituzte. Lejarazu eta Guria jatetxeek gaztelania hutsean zuten euren karta eta gaur egun ele bietan eskaintzen dute. Animatu zaitez, beraz, euskaraz eskatzera!
- Xelai taberna iaz zabaldu zuten, eta hasieratik euskaraz argitaratu ditu bere menuak eta herrian zehar zabaldu duen publizitatean ere euskarari lehentasuna eman dio.
- Duela gutxi zabaldu berri duten Koska dendako jabeek kanpaina berezi bat egin dute Elorrioko kaleetan txakurgorotzik egon ez dadin. Herrian zehar honako komikia zabaldu dute, euskara hutsean.




Izpi horiek estali dituzten lainoak ere agertu dira azken hilabeteetan Elorriion:



- Merkealdi-sasoian ohi baino errotulu gehiago egoten dira gure herrietako erakusleihoetan, besteak beste, prezioa zenbatean murriztu den adierazten duten karteltxoak. Sarri samar ikusi dugu % ikurra gaztelaniaz adierazita. Gogoratu euskaraz ikur hori zenbakiaren aurretik kokatu behar dela! % 50 esate baterako (ez 50 %).

## Eta zuk, egin diozu keinurik euskarari azken hilabeteetan?

En los últimos meses se han llevado a cabo varios gestos a favor del euskera en Elorrio. Gestos que, aunque a primera vista parecen muy simples, pueden ayudar a mejorar el estatus del euskera e incrementar su uso. Entre estos gestos podemos mencionar que el Ayuntamiento de Elorrio ha colocado las nuevas señales con los nombres de las calles en euskera, o que los restaurantes Guria y Lejarazu han comenzado a ofrecer su carta en bilingüe, o el bar Xelai ha distribuido su publicidad y ha publicado su menú dando prioridad al euskera, o la tienda Koska ha divulgado un cómic en euskera para disminuir los excrementos de los perros en las calles de Elorrio.



# NOLA ERDALDUNTZEN DIRA ELKARRIZKETAK?

Urtarrilean utzi gintuen Jose Luis Alvarez Eparantza (Txillardegia) hizkuntzalari, idazle eta politikari donostiarrak. Ekarpen handia egin zion euskarari alor ezberdinetan, eta ondare horietako bat da euskararen kale-erabilera neurtzeko eskaini zigun eredu matematikoa. Hona hemen eredu horren muina:

- Atera kontuak etxe baten lau pertsona bizi direla (A, B, C eta D).
- Atera kontuak horietako 3k euskaraz badakitela, eta 1ek ez.
- Atera kontuak euskaraz dakitenek elkarrekin euskaraz egiten dutela, baina euskaraz ez dakien bat elkartzen zaienean gaztelaniaz hitz egingo dutela.

Gerta daitezkeen elkarrizketetako zenbatean egingo dute euskaraz?

Berdea: euskaraz - Gorria: gaztelaniaz


A	B	C	D
AB	AC	AD	
BD	BC	CD	
ABD	ABC	ACD	
BCD	ACD		
ABCD			

**ONDORIOAK:** Euskaraz dakitenak %75 dira, baina 11 konbinaziotik lautan egin ahal izango dugu euskaraz. Hau da, gutxi gorabehera 3tik 1en.

¿Cómo se pasa al castellano en una conversación?

Imaginemos que en una casa viven cuatro personas y una de ellas no sabe euskera. Esta persona va a condicionar las conversaciones de tal manera que sólo una de tres conversaciones será en euskera.

## EUSKARAZKO BALIABIDEAK INTERNETEN



**www.merkatari.net:** Donostiako Udalen webgunea da hau eta, bertan, euskara euren lanean txertatu nahi duten merkatarietzako hainbat baliabide eskaintzen dira: material erabilgarria, hiztegiak, menu bihurgailua, Euskaltzaindiaren arauak...

**ww.xuxen.com:** XUXENen helburua da euskaraz idatzitako testuen akats ortografikoak detektatzea eta zuzentzea, ahalik eta modu eroso zein eraginkorrean.

**Euskalbar (<http://euskalbar.eu>):** Firefox-erako tresnabarra da, euskera-gaztelaniara itzulpenak egiteko. Hainbat hiztegitan agertutako emaitzak aurkezten dizkigu.

# ELORRIKO AGENDA BATERATUA

Ekintza eta ekitaldi asko antolatzen dira Elorrion urtean zehar: horietako batzuk Udalak antolatzen ditu, beste batzuk herriko elkarteek. Batzuetan gertatu izan da, egun eta ordu berean bi ekitaldi edo ikuskizun baino gehiago egotea eta bietan interesa izan arren, bakar bat aukeratu behar izatea. Koordinazio-arazo horiek ekiditeko, Elorriko Udala ahalegin berezia egiten ari da azken hilabeteetan.

Herriko eragile desberdinek antolatzen dituzten aktibitate guztiak AGENDA BATERATUA izeneko ekimean biltzen hasi da.

Agenda horren berri astero jaso nahi duenak iturri@elorrrio.net –era mezua bidaltzea baino ez du; eta gauza bera bere ekimenak komunikatu nahi duen orok ere.

Apirileko agenda bete-betea dator; hona hemen Agenda bateratuan jaso diren ekintzetako batzuk:

## KIROL ASTEA:

Aste Santuan, Elorriko Udalak kirol-ekintza zabala eskainiko die herriko gaztetxoei kirol-elkarteekin elkarlanean. Apirilaren 2, 3 eta 4ean, 3-12 urteko haurrei zuzendutako tailerrak egongo dira kiroldegian. Hurrengo astean, kiroldegiko tailerrez gain, herriko kirol-elkarteek antolatutako kirol-ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute, bai goizez zein arratsaldez.

## BISITA GIDATUAK:

Apirilaren 5, 6, 7 eta 8an Elorriko Udalak auzoen Ondarea ezagutzeko bisita gidatuak antolatuko ditu. Bisita hauek Elorriko Lurdesko Ama ikastetxean hasi eta Zenita auzoan barrena izango dira. Gutxi gorabehera bi orduko iraupena duen ibilbidea izango da. Bisita hauek landa ondarea ezagutzeko eta gure arbasoen bizimoduaren antolaketari buruz apur bat gehiago jakiteko aukera paregabea ematen dute. Ibilbidea euskaraz zein gaztelaniaz egin daiteke.

## ERREKAKALEKO JAIK:

Apirilaren 13, 14 eta 15ean ospatuko dira. Elorriko Merkatarien Elkarreak (EMEK) antolatzen du festa hau.

## EUSKAL JAIA:

Apirilaren 29an izango da, Besaide Dantza Taldearen eskutik. Bertan, Elorriko umeak eta inguruko beste herrietako taldetako umeak elkartuko dira euskal dantzen erakustaldia egiteko, egun osoan zehar.



El Ayuntamiento de Elorrrio ha creado "Agenda bateratua", una agenda común, con el objetivo de coordinar todas las actividades culturales, sociales y deportivas que se organizan en el municipio. Todas aquellas personas que deseen recibir información sobre las actividades o que quieran dar a conocer las suyas pueden hacerlo a través de la dirección electrónica [iturri@elorrrio.net](mailto:iturri@elorrrio.net).

Algunas de las actividades previstas para los próximos meses son: la semana del deporte, visitas guiadas, Euskal Jaia, fiestas de Errekakale,...